

DONIBANE'AK

(SAN JUAN'AK)

Izkuntzea, ekanduak, oiturak eta abar dira enderrien ezaugarririk urtenenak, eta oneikaz guztiz aberatsa da gure Euskalerrri maitea.

Uri ta baserri bakotxak bere oitura bereziak ditu ta guk, euskaldunok, geure bizitzearen zati ditugu, belaunik-belaun geuganatutako oitura zaharrok.

Oitura asko errixka edo uri bakotxeko barik toki askotakoak, edo-ta Euskalerrri guzti edo geientsukoak dira. Oneitariko da Donibane aurregun gabean etxondoetako baratz naiz zelaietan suak egiteko oiturea, be.

Sarri entzun izan dautsiet gure zaharreri, Donibane goizean eguzkiak dantzan egiten daula itsaso edo mendi ostetik urtekeran. Bizkai'ko baso-basoan jαιο, azi ta bizia izan-arren, nik neuk ez dot iñoz ikusi olako ikuskixun gelgarririk, baiña gauza arrigarri bat nabaria bai ba-naz Donibane goizetan: ba-da, beti egon oi dira intzez, edo iruntzez, bustita gure baso, larre, mendi ta landetako bedarrak.

Doniane goizean, goiz iruntzetan ortozik ibilli ezkeru urte atan arra bat azten ei dira neskato-mutikoak, eta pozarren joaten giñan, oiturea baiño ordu bi edo iru lenago ogea itxita, basorik-baso ta larrierik-larre, makilla bana eskuetan eta biotzak pozez, landetako lora mueta guztiakaz txorta ederrik egiñez.

San Juan-aldian orrillo betean egon oi da Izadia Euskalerrri'ko baso, mendi ta zelaietan eta etxandera bakotxak, edo neskatxak, baso-lora, baratz-ari, galburu, arto-landare, berakatz, madari, arka-

karatz, mao, ta beste etxe-liliz egindako lora-moltzo eder, margotsu ta urrintsua eroan oi dabe Elizara, meza nagositan apaizak, abade jaunak, onetsi dagizan. Lora-txorta onetsi au ondo jagonda, gordeta, eukiten da, urte guztian, urrengo Donibane-aurregunerarte ta sasi-moltzo batean erre, orduan, illuntzean, su ta gar, neska-mutillak-eta kanta zahar au alaitasunez beterik abesten daben bitartean :

Doniane beizpera gabean,
abadeak asarretu zirian ;
ez eben besterik egiten :
alkarrerri muxturak ausiten.
Gaur dala, biar dala, Doniane,
etzi San Juan biaramone.
San Juan dabil soloetan,
artoetan da garietan :
Artoak eta gariak, kaxan gorde.
Zapoak eta sorgiñak, sutan erre.
Ber-berton ! Ber-berton !

Sugarrak apur bat makaldu daitezanean su-ganetik zear zapar-taka asten dira neska-mutikoak, atso-agure ta umetxuak areri begira poz-ertzitan dagozan bitartean, zantzo ta irrintziz, aitatu dodan abestia guztien arte abestuz.

Etxe-jaunak edo semeren batek, barriz, Donibane goizean, ogerik-ara, gosaldu baiño len, ortoz-ortozik joan basora ta lexar edo areitz-adar edo landare dotorerik ekarri oi dau. Beretariko adar-zati bat gurutzez ezarri adaburuan lora, ortu-ari, igali-zugatzen orri, landare ta abarrez, eta etxaurreko ate-ondoan jarten dau. Elorri-adarra bere ipiñi oi da, ate-ertzetan, yusturi ta oiñazuak uxateko. Doniane'tako egikixun oneik aintxiñako euskaldunek Izadiarentzat eben oneraspen edo jaierea ulertarazoten daukula nik uste.

Euskalerrri'an, kristiñautasuna zabaldu baiño len, gure asabak, antza, Izadi-jaia egin eukien mendi ta basoak mardulen izaten ditugun aldi olerkoi onetan. Eta oitura tolesbageok txarrerakorik ez daben ezkeru, jai oneri (Donibane'ri) ezarriko eutsiezan, bear ba-da, uda betearen jaiok, oitura onesgarriok onarturik.

Iñungo iñun olerkirik ba-da, benetan olerkoiak Donibaneak Euskalerrri'an. Beredin lora muetaz apainduta larre ta basoetako bedartzta mardulak. Egunak garden, garitza el-ariñetan zibuka. Txoriak txorrotxiolari goiz-illuntzetan, udabarrian asi dituen kumen poza basoeri azalten. Erreka-munak mariorratz urdin, muxker, gorrixka ta beste kolore bizi ta dotorez alai. Sorginderak zidor-ertzetako lilirik-lili laz-tanka, jaieguneko jantzita... Pozkida, alaitasuna, eresia, abestia ta bizi izateko poza alde guztietan.

Izadia jantzi barri apaiñenaz jantzita egun luzeenen zelai gardenean, Egille Gurenari gorazarrezko aharaia (inoa), eresi leun eta samurren laguntasunaz alaikiro abesten.

Euskalerrri maite-kutuna!
Zure oiturak gogoratuaz
zapartari jarten yat barna.

AURRE-APRAIZ.

Caracas, 1961, Maiatzak 30.

